Catéchisme

en biscayen d'Arrigorriaga

# Arrigorriaga

## Catecismo bascongado

## Dialecto vizcaino

## Variedad de Arrigorriaga

[copia de Darricarrère hecha en Bilbao, Diputación, por encargo de Lacombe]

## Sarrerie.

Cristiñeu fiel guztijec
Dagoz guztiz obliguewic
Debociño artutera
Euren vijotz guztiric.
Jesus gueure verguijen
Curtze Santueri,
Non il gure izen euen
Gu akratiareen
Pecatuen azpitic
Ta arerijo deunguetatic
Orregaitic bada zu
Acostumbrauco zara
Alan ceñatutera
Celan aitiaen eguitera
Yru curtze eguinagaz
Lelengoa becoquijen
Jaungoicoac librau gaizen
Pensamentu charretaric:
Bigarrena agoan
Jaungoicoac librau gaizen
Berba deunguetaric.
Yrugarrena bularrien
Jaungoicoac librau gaicen
Obra ta deseo charretatic
Onanche esanagaz:
Curtze ✝ Santien
Señaliegaitic,
Gueure ✝ arerijoetaric
Libreu gaizuz
Gueure Jaune ✝ ta Jangoicoa.
Aitien ✝ Semien ta Espiritu
Santuen ucenian. Amen.

Credoa.

Sinistuten dot Aite Jaungoico guztiz poderoso, ceruen

ta lurreen crijedoriegan, eta bere Seme bacar Jesucristo guree Jaunegan, cein soctu zen Espiritu Santuen obraz ta gracijez, yaiyo zan Marije Virgiñe ganic, padecitu euen Poncio Pilatosen poderien bben, izen zan crucifiquedue, ille eta enterradue, yatsi zen infernuetara; aric irugarren egunien erresucitau zen illen arteric, igon euen ceruetara, an dago yareiric Aite Jangoico guztiz poderosoen escuaco aldetic: aric etorrico da viciyec eta illec juzguetan. Sinistuten dot Espiritu Santuegan, Elessa Santa Catoliquie, Santuen comuniñoa, pecatuen parcaciñoa, araguijen erresurreciñoa, eta seculeco vicitzie. Amen.

## Fedeco articuluec.

Fedeco articuluec dire amalau. Lelengo zazpirec pertenecietan yacoz Jangoicotasuneri; eta beste zazpirec Jesucristo guree Jaun Jangoico ta guizon egui fez coen guizontasun santueri.

Jangoicotasuneri pertenecietan yacozanac dire oneic.
Lelengoa sinistu Jangoico guztiz poderoso bacar bategan.
Bigarrena sinistu dala Aitie.
Yrugarrena sinistu dala Semie.
Laugarrena sinistu dala Espiritu Santue.
Bostgarrena sinistu dala criyedorie.
Seigarrena sinistu dala Salbadorie.
Zazpigarrena sinistu dala Glorifiquedorie.
Guizóntasun santueri pertenecietan yacozanac dire oneic.

Lelengoa sinistu Jesucristo guree Jaune, guizona dan partez, soctue izen zala Espiritu Santuen graciyez ta virtutez.

Bigarrena sinistu yaiyo zala Andra Marije beti Virgiñeganic, doncelle gueldituten zala semie yaiyo baño lenago, yaiyo gueran, da yaiyo azquero.

Yrugarrena sinistu artu cituzela pasiñoa ta erijotzie, gu pecatarijoc salbetiaren.

Laugarrena sinistu yatsi zela infernuetara, eta atara cituzela bere etorrera santuen bequiree egozan guree santuen arimac.

Bostgarrena sinistu irugarren egunien viztu zela illen arteric,

Seigarrena sinistu igon euela cerуetara eta an dagoala jarriric Aite Jangoico guztiz poderosoen escoaco aldetic.

Zazpigarrena sinistu etorrico dala vicijec eta illec juzguetara, an da, onai emotera betico glorije, bere mandamintu santuec gorde cituezalaco; eta deungai betico penac, gorde etzituezalaco.

Aite gurie.

Aitegurie, ceruetan zagozana, santifiquedu bedi zure icena, betor gugana zure erreinue, egiñ bedi zure borondatie, celan ceruen, alan lurrien. Egunien eguniengo gueure ogije emon egui guzu gaur; eta parcatu eguiguzuz gueure zorrac guenc gueure zordunei parcatuten deutseguzan leguez, eta ichi ez eguiguzu tentaciñoan yausten, baye librau gaizuz gacheric. Amen.

Ave Marije.

Ave Marije, gracijez betie, Jaune da zuguez, bedeinquetie zara zu andra guztijen artien, eta bedeinquetie da zure sabeleco frutue, Jesus.

Santa Marije, Jaungoicoen Ama, erregutu eguizu gu pecatarijoc gaitic orain, eta gueure eriotza-co orduen. Amen.

Salvie.

Salve Erreguiñe, misericordijezco ama vicitze, dultzure, eta gueure Esperantzie, Salvé. Zurei gueiyez gagoz Evaren ume desterraduoc. Zugana gagoz cizpuruz, ta negarrez negarrezco valle onetan. Ea bada Andrie, Abogada guenzie, biortu eguizuz gugana zure begiu misericordiazco orreic, eta destierru au igarota, eracutsi eguiguzu Jesus zure sabeleco frutu bedeinquetue. O clementisima!; O piadosa!; O dulce virgiña Marije! Erregutu eguizu gugaitic Jaungoicoaren Ama santie, merecidu daigun alcantzetie

Jesucristoren promesac. Amen.

Jangoicoen legueco mandamintuec.

Jangoicoen legueco mandamintuec dire amare: lelengo irurec pertenecietan yacoz Jangoicoen onrieri; eta beste zazpirec progimuen probechueri.

Lelengoa Jangoicoa ametie gauze guztijen ganien.

Bigarrena bere ucen santuegaitic ez Jureemintuuric equitie arpelic.

Irugarrena domecac eta yaiyec gordetie.

Laugarrena aite eta ama onretie.

Bostgarrena ez iñore iltie.

Seigarrena aragizco pecaturic ez equitie.

Zazpigarrena iñori ecer ez ostutie.

Zortzigarrena falso testimoniñoric iñori ez erequitie, eta guzurric ez esatie.

Bederatzigarrena ~~iñoren~~ progimuen emazteric ez desietie.

Amaregarrena iñoren ondasunen desio charric ez equitie.

Amare mandamintu oneic sartuten dire biten. Lelengoa Jaungoicoa ametie, ta servietie gauze guztijen gañien. Bigarrena ametie gueure progimue gueure burue leguez. Amen.

---

Cristiñeuen dotrinien esplique ciñoa preguntie eta erespuestacaz.

Preguntetan dot. Cristiñene zara?

Erespuestie. Bai Jangoicoen gracijegaz

P. ¿ Cristineuen ucen ori nogandic yatortzu?

Er. Jesu cristo gure Jaunegaic.

P. ¿ Cer esan gure dau cristiñeuec?

Er. Cristoren guizona.

P. ¿ Cer entendietan dozu Cristoren ğizonagaz?

Er. Jesucristoren fedie dauquen gizona, cein artu euen bautismuen, eta bera serbietaco obliguedunic dagoana.

P. ¿Cein de Cristiñeuen Señalie?

Er. Curtze santie.

P. ¿Cegaitic?

Er. Dalaco cristo crucifiquedunen irudije, ceñetan erredimidu genducen.

P. ¿Ceimbet moduten equiten deu cristiñeuec señale ori?

Er. Modu biten

P. ¿Ceintzuc diez?

Er. Ciñetutia eta santiguetie.

P. ¿Cer da ciñetutie?

E. Da escoaco escuco orcoloagaz iru curtze equitie. Lelengoa becoquijen, bigarrena agoan, irugarrena bulerrien, gure Jaun, eta Jangoicoagaz berba equiten dogule.

P. Eracutsi celan?

Er. Curtze santien + Señaliegaitic, gueure + arerijoetaric, libredu gaizuz + gueure Jaune ta Jangoicoa.

P. ¿Cegaitic ceñatuten zara becoquijen?

Er. Jangoicoac libreu gaicen pensamintu charretaric.

P. ¿Cegaitic agoan?

Er. Jangoicoac libreu gaicen berba charretaric.

P. ¿Cegaitic bulerrien?

Er. Jangoicoac libreu gaicen obra eta desio charretaric.

P. Cer da santiguetie?

Er. Da escoaco escuco atzamar lodijen ureengo bijecaz curtze bat equitie, becoquitic bulerrera, ta ezquerreco sorbaldatic escoacora. Trinidade guztiz santiegaz berba equiten dogule.

P. ¿Eracutsi celan?

Er. Aitien + eta Semien, eta Espiritu Santuen ecenien. Amen.

P. ¿Nos equin biez dogu curtze ori?

Er. Obra onen bat asten dogun guztijen, edo necesidade, tentaciño, edo peligruren baten gagozanien. Batez bere oitic yaiquiten garienien, etsetic urteiten

doquien, elessan sartuten garienien, yatera goazanien, eta oira lo eguitera goazanien.

P. Cegaitic aimbeste bider?

Er. Cegaitic ece, dempora guztijetan eta lecu guztiyetan gure arerijoac esetsiten deuscuen, eta persiguietan gaitiezan.

P. ¿Ce arerijo dire orreic?

Er. Demoniñoa, mundue eta araguije

P. ¿Arerijo orreic vencietaco inderra danco curtziec ala?

Er. Bai Jaune.

P. ¿Nondi danco curtziec inder ori?

Er. Cristoc bere erijotziegaz anche vencidu cituzelaco.

P. ¿curtzie adoretan dozunien celan esaten dozu?

Er. Adoretan zaituguz, Cristo, eta bedeinquetuten zaituguz, ceure curtze Santuegaz mundue erredimidu cenduelaco

Cristiñauen doteinien divisiñoa

Ycusi dogu Cristiñene zariela alan icenien, alan señalien: esan eguidezu orain:

P. ¿Ceimbet gauze yaquin bier dituz cristiñenec usu errazoez cora eldutien danien?

Er. Lau gauze.

P. ¿ceintzuc dire?

Er. Lelengoa cer sinistu bier danen yaquitie. Bigarrena cer escatu bier danen yaquitie. Irugarren cer eguin bier danen yaquitie. Laugarrena cer artu bier danen yaquitie.

+ P. ¿Celan yaquingo deu cer sinistu bier danen?

Er. yaquinegaz Credoa, eta Fedeco artículuec

P. Celan yaquingo deu cer escatu biar danen?

P. ¿Celan yaquingo deu cer artu bier danen?

Er. Yaquiñegaz Elessa Amasantien zazpi Sacramentuec.

doqunien, elessan sartuten garienien, yatera goazanien, eta oira lo equitera goazanien.

P. Cegaitic aimbeste bider?

Er. Cegaitic ece, dempora guztijetan eta lecu guztiyetan gure arerijoac esetsiten deuscuen, eta persequietan gaituezan.

P. ¿Ce arerijo dire orreic?

Er. Demoniñoa, mundue eta araguije

P. ¿Arerijo orreic vencietaco inderra dauco curtziec ala?

Er. Bai Jaune.

P. ¿Nondi dauco curtziec inder ori?

Er. Cristoc bere erijotziegaz anche vencidu cituzelaco.

P. ¿curtzie adoretan dozunien cela esaten dozu?

Er. Adoretan zaituguz, Cristo, eta bedeinquetuten zaituguz, ceure curtze Santuegaz mundue erredimidu cenduelaco

## Cristiñauen dotriñien divisiñoa

Ycusi dogu Cristiñene zariela alan icenien, alan señalien: esan equidezu orain:

P. ¿Ceimbet gauze yaquin bier dituz cristiñenec usu errazoez cora eldüten danien?

Er. Lau gauze.

P. ¿Ceintzuc dire?

Er. Lelengoa cer sinistu bier danen yaquitie. Bigarrena cer escatu bier danen yaquitie. Irugarren cer equin bier danen yaquitie. Laugarrena cer artu bier danen yaquitie.

P. ¿Celan yaquingo deu cer sinistu bier danen?

\+ Er. Yaquinegaz Aite gurie, eta Elessaco besk oraciñoac

P. ¿Celan yaquingo deu cer equin bier danen?

Er. Yaquiñegaz Jaungoicoaren legueco amar mandamintuec, bost elessacoac, eta amalau obra misericordijezcoac.

P. ¿Celan yaquingo deu cer artu bier danen?

Er. Yaquiñegaz Elessa Ama santien zazpi sacramentuec.

Cristiñenen dotriñien lelengo partie, ceiñetan espliquetan dirien Credoa, eta Fedeco articuluec.

Lelengotic asiten gariela, esan equidezu:

P. ¿Noc esan euen Credoa?

Err. Apostoluec.

P. ¿Cetaraco?

Er. Guci fedeco gauzac irecasteco.

P. ¿Eta zuc cetaraco esaten dozu?

Er. Cristiñenoc danquegun fedie confesetaco

P. ¿Cer da Fedie?

E. Ycusi ez dogune sinistutie.

P. ¿Ycusi cenduen jaiyoten Jesucristo?

E. Ez Jaune.

P. ¿Ycusi cenduen ilten, edo ceruce igoten?

E. Ez Jaune.

P. ¿Sinistuten dozu?

E. Bai Jaune.

P. ¿Cegaitic Sinistuten dozu?

E. Jaungoicoac Elessa Ama santierei alan aguertu deutselaco, eta Elessa Ama Santiec alan eracusten deusculeco.

P. ¿Ce gauze dire cristiñeue leguez danquezucenac, eta sinistuten dozuzenac?

E. Erromaco Elessa Ama santiec danquezanac, ta sinistuten ditazenac.

P. Ta, cerbzuc dire orreic.?

E. Fedeco articuluec Credoan dagozan leguez.

P. ¿Ce gauze dire Fedeco articuluec?

E. Dire fedeco misterijoric andijenac.

P. Cetaco dire Fedeco articuluec?

E. Guewre Jangoicoen, eta Jesucristo gure Erredendorien barri, ta ezauera arguijegoa emoiteco.

P. ¿Nor da gure Jangoicoa?

E. Da gauze bat esan eta pensau al leitequienic andijena ta miragarrijena. Jaun bet, ecin gueijegoan ona, poderosoa, sabiyoa, justoa, gauze guztijen principijoa eta fine.

P. Trinidade guztiz santue nor da?

E. Da. Jaungoicoa bera, Aitie, Semie, ta Espiritu Santue, iru persona distinta eta Jangoico equijezco bacar bat.

P. ¿Aite Jangoicoa da?

E. Bai, Jaune.

P. ¿Semie Jangoicoa da?

E. Bai, Jaune.

P. Espiritu Santue Jangoicoa da?

E. Bai Jaune

P. Yru Jangoico dire?

E. Ez Jaune, ezpada Jaungoico equijezco bacar bat.

P. Aitie Semie da?

E. Ez Jaune.

P. Espiritu Santue Aitie edo Semie da?

E. Ez Jaune.

P. cegaitic?

E. Yru personac distintoac dirielaco, izen arren Jangoico equijezco bacar bat.

P. Orreic orlan diriela: ceimbet izete, entendimientu eta borondate dagoz Jangoicoagan?

E. Yzeite bacar bat, entendimintu bacar bat, eta borondate bacar bat.

P. Eta ceimbet persona?

E. Yru diferentiec, Aitie, Semie eta Espiritu Santue.

P. Jangoicoa celan da guztiz poderosoa?

E. Bere gure izenagaz bacarric, gure danen guztije equiten danelaco.

P. Celan da Crijedorie?

E. Ganze guztijec ezerbere ecetic equin dituzelaco

P. Cetaraco equin euen Jangoicoac guizona?

E. Bera ezagututeco, amataco eta servietaco, mundu onetan eta guero arruen gozetaco.

P. Celan da Salbadorie?

E. Emoiten danelaco gracije eta pecatuec parecatuten dituzelaco.

P. Celan da Glorificadorie?

E. Bere gracijen izeuten danenari, emoten deutselaco betico glorije.

P. Baunco Jangoicoac guc leguez gorputzic?

E. Jangoicoa dan partez, ez; dalaco espiritupurue, baye guizona dan partez, bai.

P. Yru personetaric cein equin zen guizon?

E. Bigarrena, cein den Semie.

P. Aite equin cen guizon?

E. Ez Jaune.

P. Espiritu santue equin cen guizon?

E. Ez Jaune.

P. Cein bada?

E. Bacarric Semie, ceñeri, guizon equinic, derechon Jesucristo.

P. Celan nor da Jesucristo?

E. Da Jangoico viciyen Semie, gu erredimietarren, eta guri celan vici eracustiarren guizon equin cena.

P. Eta ceimbet izete, entendiminta eta borondate dagoz Jesucristogan?

E. Yzete bi, bata Jangoicoa dan partez, eta bestie guizona dan partez; entendimintu bi, bata Jangoicoa dan partez eta bestie guizona dan partez; borondate bi, bata Jangoicoa dan partez, eta bestie guizona dan partez.

P. Eta ceimbet persona ta memorije?

E. Persona Jangoicozco bacar bat, cein den Trinidade guztiz santuco bigarren personie; eta memorije bacar bat, bada Jangoicoa dan partez ez daunco memorijeric.

P. Cer esan gure dan Jesusen ucenac?

E. Salbadorie

P. Cetatic salbau guenducen?

E. Gueure pecatuetatic, eta demoniñoaren cautiberijotic.

P. Cer esan gure dan Cristoc?

E. Ungidue

P. Cegaz ungidue izen zan?

E. Espiritu Santuen graciyez eta doyez.

P. Jesucristo gure Jaune celan sortu eta yaiyo zan, Amac doncelle izetie galdu bagaric?

E. Jangoicoac ori millegroz equiten euela.

P. Cegaitic diñozu: "Jangoicoac ori millegroz equiten

euela"?

E. Jesucristo guce Jaune, ez zalaco icen sortue, ez yaiyoa beste guizonac leguez.

P. Celan yazo zan Encarnaciñoco misterijoa?

E. Lelengo, Ama Virgiñien errai garbijetan formau euen Espiritu Santuec Andra onen odol garbijegaz gorputz guztiz eder bat. Bigarren eguin euen ecerecetic arime bat, eta sartu euen gorputz atan. Yrugarren orduenche gorputz eta arime aiegaz batu zen Jangoicoen Semie. Laugarren, onan, len Jangoico bacarric cena, Jangoico izetieri ichi bagaric, gueratu zen guizon equinic, eta dericho Jesucristo.

P. Eta celan yaiyo zan millegroz?

E. Urteiten euela Ama Virgiñien sabeleti bere doncelletasunen calte bagaric, eguzquien argui errañue iguerotzen dan leguez cristel bateti, cristela ausi, ez loitu bagaric.

P. Eta bere Ama vici izen ete zan guero beti doncelle?

E. Bai Jaune beti.

P. Cegaitic curtzien il guce icen euen?

E. Gu libretiarren pecatutic, eta betico erijotzati

P. Cegaitic gueunguen betico erijotzaco sentencije?

E. Pecatu eguin euelaco guce lelengo gureso Adanec, ceñegan guztijoc pecatu eguin guen duen.

P. Cein de, Jesucristo il ezquero yatsi cen infernue?

E. Ez condenaduen lecue, ezpada limboa, non egozan justoac.

P. Ynfernu bet baño gueijego dago ala?

E. Bai, Jaune, dagoz lau lurren barrenen, eta dericho, condenaduen infernue; purgatorijoa; seiñen limboa; justoen limboa, edo Abrahamen senoa.

P. Eta ce gauze dire orreic?

E. Condenaduen infernue da lecu bet, ceñetara doazan pecatu mortalien ilten dirienac, an beti beti penaduec izeteco. Purgatorijoa da lecu bet, ceñetara doazan gracijen ilten dirienen arimac euren pecatuen zor guztije pagau bagaric, an pena icaragarrijecaz garbituec iceiteco. Seiñen limboa da lecu bet, ceñetara doazan, batiatuec izen bagaric uso errazoez cora

ildu baño lenago ~~il~~ ilten dirienen arimac. Eta justoen limboa, edo Abrahamen senoa da lecu bat, ceñetara yoaten cirien, Jesusec gu pecatutic atara baño lenago, Jangoicoen gracijen ilten cirienen arimac, guztiz garbituec egon ezquero; eta berau de, Jesucristo, gure Jaune equijez eta menetan yatsi cena.

P. Celan yatsi cen?

E. arimie Jangoicotasunegaz baturic.

P. Eta bere gorputze celan quelditu cen?

E. Jangoicotasunegaz beragaz baturic

P. Eta bere gorputze celan quelditu cen?

E. Jangoicotasunegaz beragaz baturic

P. Celan viztu cen irugarren egunien?

E. Bere gorputz eta arime glorijez betie barriro batuten ciriela, ostera iñoz ez illeco.

P. Celan igon euen cerunetara?

E. Berez

P. Cer esan gure dan Aite Jangoicoen escoaco aldetic yarriric egotiec?

E. Cristoc Jangoicoa dan partez, Aitec ainbeste glorije danquela; eta guizona dan partez, beste edoceñec baño geijago

P. Nois etorrico da vicijec, eta illec juzguetan?

E. Mundien acabuen

P. Eta orduen viztuco dire illec guztijec ala?

E. Bai Jaune, len euqui cituezan gorputz eta arimacaz eurecaz.

P. Eta mundien acabue baño lenago juzgauec izengo ete gara?

E. Bai Jaune, guztijoc geure vicitzien acabuen juzguenco gaitu Jangoicoac, eta emongo deuscu sentencije, onai cerunen bera beti gozataco, eta deungai infernuen ~~pen~~ beti penetan egoteco

P. Cer sinistuten dozu, esaten dozunien "Santuen comuniñoa"?

E. Cristiñuen fijela partie danquela bestien gauze onectan, gorputz baten zatijec leguez, cein den Elessie.

P. Cer da Elessie?

E. Da cristiñen fijel guztijec batera arturic equiten daudien gorputze, ceñen burue da Aite Santue,

P. Noc da Aite Santue?

E. Da Erromaco Obispo nagusi, lurrien Cristoren ordecoa, ceñeri guztijoc obedecidu biere deutsegun.

P. Credoaz eta articuluez ganera, beste ganzeric sinistuten bozu?

E. Bai Jaune, liburu santuetan dagoan guztije eta Jaungoicoac bere Elessieri aguertu deutsen guztije.

P. Ce ganze dire orreic?

E. Ori ez niri preguntau yaquiturije bacoa nasalaco: bauquez Elessa Santiec Eracuslac, erantzuten yaquingo daudienac.

Maissuec. Ondo diñozu. Maissuei toquetan yaquie, eta ez zuri, gure fedeco ganze guztijen contue banan eta arguiro emotie. Zuretzat asco da, yaquitie fedeco articuluec Credoan dagozan leguez, ta eurec sinistutie.

---

Cristiñenen Dotriñien bigarreen partie, Ceñetan espliquetan dan, cer escatu biere dan, eta Elessa santien oraciñoac.

Icusi dogu celan daquizun sinistu bier dana, cein dan lelengoa. Gatozan bigarrenera, cein dan escatu bier dana.

Esan equidezu.

P. Noc esan euen Aite gurie?

E. Jesu cristoc.

P. Cetaraco?

E. Guri oraciño equiten iracasteco.

P. Cer da oraciño equitie?

E. Da Jangoicoagana vijotza altzau, eta mesedeec

escatutie

P. Ceimbet modutecoa da oraciñoa?

E. Modu bitecoa, mentala, eta vocala.

P. Cer da oraciño mentala?

E. Da arimeco potencijecaz equiten dand: memorijecaz acordetan garíela gauze onen bategaz. Entendimentuegaz gauce ori buruen erabilten dogule, eta bere gañien pensamintue darabilgule. Eta boron datiegaz proposititu onen batzuc equiten doguzela, esateraco, lengo pecatuecaz damutu, ez gueijago pecaturic equiteco, eta confesiño on bat equiteco, eta guero vicitze on bat equiteco - - - - eta onelangoac.

P. Cer da oraciño vocala?

E. Da berbacaz eta miñegaz equiten dana, esateraco, Aite gueie errecetan dogunien equiten doguna.

P. Eta oraciñoa celan equin bier da?

E. Atenciñoagaz, umiltasunegaz, eta esperantziegaz, onan oraciñoan luzero iraunten dogule.

P. Aite gueie esaten dozunien nogaz berba equiten dozu?

E. Guerue Jaun, eta Jaungoicoagaz

P. Non dago gure Jaun eta Jangoicoa?

E. Lecu guztijetan, batez bere ceruen, eta altaraco sacramentu guztiz santuen.

P. Eta Jesucristo, guizona dan partez, non dago?

E. Bacarric ceruen, eta Altaraco sacramentu guztijz santuen.

P. Oraciño guztijen artien, cein da onena?

E. Aite gueie.

P. Cegaitic?

E. Dalaco Jesucristoc bere agoz esana, Apostoluec escatute.

P. Cegaitic gueijago?

E. Dauguezalaco zazpi peticiño ~~pretend?~~ caridade guztijen ~~P. Cer escatuten dozu peti~~ fundenec.

P. Ceintzuc dire?

E. Lelengoa santifiquetu bedi zure ucena [correction: "d" written above "tu"]

P. Cer escatuten dozu peticiño orretan?

E. Ezagutue, eta onradue izen dedille Jangoicoen ucena mundu guztijen.

P. Cein de bigarrena?

E. Betor guquena zure erreiñue.

P. Cer escatuten dozu peticiño orretan.

E. Erreiñau daguijela Jangoicoac gure arimetan, emen lurrien gracijez, eta guero emon daigule glorije.

P. Cein de irugarrena?

E. Egiñ bedi zure borondatie, celan ceruen, alan lurrien.

P. Cer escatuten dozu peticiño orretan?

E. Eguin daigule Jaungoicoen borondatie lurrien gagozanoc, ceruen zorijonecoac eguiten danden leguez.

P. Cein de laugarrena?

E. Egunien egunien go guewre oguije emon eguiguzu gaur.

P. Cer escatuten dozu peticiño orretan?

E. Emon daguigule, gorputzec bier danen yanariye arimientzat gracije ta sacramentuec.

P. Cein da bostgarrena?

E. Parcatu eguiguzuz guewre zorrac, guenc guewre zordunei parcatuten deutseguzen leguez

P. Cer escatuten dozu peticiño orretan?

E. Parcatu daiguzela Jaungoicoac guewre pecatuec guenc atsecaberen bat emon deuscuneri, edo gachen bat egiñ deuscuneri parcatuten deutsegun leguez.

P. cein da seigarrena?

E. Ez eguiguzu ichi tentaciñoan yausten.

P. Cer escatuten dozu peticino orretan?

E. Jangoicoac ez daigule ichi yausten, diabruac yausi eraguiteco dacarguzen pensamintu citel eta tentaciñoetan, ta ez eurei lecuric emoiten.

P. Cein de zazpigarrena?

E. Baye libreu gaizuz gacheric.

P. Cer escatuten dozu peticiño orretan?

E. Libreu gaguizela Jangoicoac arimeco ta gorputzeco

gach guztietaric.

P. Cegaitic esaten dozu asieran: Aite gurie cerුetan zagozana?

E. Altzetaco vijotza Jangoicoagana, ta escatuteco mesediec umiltasunegaz, eta confientziegaz

P. Acaberan esaten dozun berbiec: Amen, cer esan gure dau?

E. alan izen dedille.

P. Ceintzuc dire Ama Virgiñieri erregututeco oracinoric onenac?

E. ave Marije eta Salvie.

P. Noc esan euen Ave Marije.

E. Anguerு San Grabielec Ama Virginieri barri onac emoten etorri zanien

P. Noc esan euen Salbie?

E. Elessa Ama santiec danco bereturic.

P. Cetaraco?

E. Ama Virgiñieri mesediec escatuteco.

P. Ave Marije, edo Salvie esaten dozuzenien, nori berba eguiten deutsezu.

E. Gueure Ama Virgiñe guztiz onari.

P. Nor da Ama Virgiñie?

E. Da virtutez beterico andra bat, Jangoicoen Ama, ta cerුen dagoana.

P. Ta altaran dagoana nor da?

E. Cerුen dagoanen irudi bet.

P. Cetaraco dago altaran?

E. Gu arau icusite, acordau gaitezan cerුen dagoanagaz, eta bere irudije dalaco, errreverentzijen daigun.

Yrac. Bada beste santuen irudi ta imagiñei bere, alan eguin biar deutsezu.

P. Anguerුei eta santuei bere erregutu biar ete deutsegu?

E. Bai, Jaune, queure bitartecoai leguez

P. Cer dire anguerුec?

E. Dire Jangoicoa icusten dagozan espiritu zorijoneco batzuc.

P. Cetaraco equin cituzen Jangoicoac?

E. Bera beti alabau eta bedeinquetu daguijen.

P. Cetaraco gueiyago?

E. Bere Ministroac leguez, Elessie gobernetaco eta guizonac yagosteco.

P. Orlan zuc bere banguezu ovre Anqueru Guardacoa?

E. Bai, Jaune, banquet, eta guizon bacochac dauco berie.

Yrac. Bada euqui eguijozu debociño andije, eta egunien egunien berari errezau eiquijozu

---

Yrugarren partie, ceñetan espliquetan dan cer equin bier dan.

Ycusi dogu sinistu eta escatu bier dozune, dacuscun celan daquizun equin bier dozune. Esaizu.

P. Cein de Jaungoicoen legueco lelengo mandamintue?

E. Jangoicoa ametie gauza guztijen ganien.

P. Noc ametan dau Jangoicoa?

E. Bere mandamintu santuec gordetan dituzenac.

P. Cer da Jaungoicoa ametie gauze guztijen ganien?

E. Gauze guztijec galdu gurago izetie, bera ofendidu baño.

P. Cetara queiJago obliguetan gaitu mandamintu onec?

E. Gorputzeco ta arimeco alequin guztijecaz bera bacarric adoretara, beragan sinistu ta esperetan dogule fede vici bategaz.

P. Noc equiten deu pecatu, onen contra?

E. Ydolo edo guzurrezco Jangoicoac adoretan dituzenac, edo eurecgan sinistuten danenac; fedien contraco gauzeren bat sinistuten danenac, edo fedeco misterijoren baten ganien duderen bat danquenac; edo dotrinie bier dan leguez ez daquijenac; fede, esperantza, eta caridadeco actoac bier dirienien equiten eztitucenac; edo Jangoicoen misericordijan esperetan ez danenac; edo prestaera charragaz sacramenturen bat artuten danenac.

P. Noc gueijago?

E. Aztiei sinistie emoten deutsienai; edo sorguin queri-
-jetan dabiltzezanac, edo oquerreco gauzacaz, edo oquer
Jaungoicoa adoretan daudienac.

P. Cen de bigarren mandamintue?

E. Ez jureminturic equitie arpelic.

P. Nortzuk arpelic juremintu equiten daude?

E. Equije baga, justicije baga, edo necesidade baga juremintu equiten daudenac.

P. Cer da equije bagaric juremintu equitie?

E. Da juremintu equitie norberen erechijen contra, edo guzurregaz.

P. Eta equije bagaric, edo dudan dagoala juremintu equitie, ce pecatu de?

E. Pecatu mortala, juremintue gauze chiquerren ganien izen arren bere.

P. Cer da justicije bagaric juremintu equitie?

E. Da juremintu equitie gauce charren bat equiteco, esateraco, progimueri gachen bat equiteco.

P. Eta ce pecatu de justicije bagaric juremintu equitie?

E. Juremintue gauze andijen ganien bada, pecatu mortala; eta gauce chiquerren ganien bada, pecatu veniela.

P. Cer da necesidade bagaric juremintu equitie?

E. Da juremintu equitie balijo guichico gauzac gaitic, edo ecerizaoco

P. Ce pecatu de au?

E. Pecatu veniela, equijec, eta justijec lagunduten badeutse.

P. Eta equiten dauenac voto, juremintu, edo promesen bat, gauza onen bat equiteco, cumplidu biar ete dau?

E. Bai, Jaune, eta ez cumplietie, edo cumplidu bagaric luzero euquitie, pecatu mortala da, gauza astunen ganien izan ezquero.

P. Eta Jangoicoac equiñico gauzac gaitic arpelic juremintu equitie, pecatu ete da?

E. Bai, Jaune, cegaitic ece, euretan equiten yaco, euren

Creyedore Jaungoicoari

P. Ce modutan juremintu equiten da Jaungoicoac equiñico gauzac gaitic?

E. Esaten dala, contuzeco, neure arimiegaitic, ceruegaitic, lurregaitic & juremintu equiten dot, au, edo bestie, onan edo alan dala.

P. Ce neurri artu guiñaique juremintu arpelic ez equiteco?

E. Artu ecandue, esateco: Bai, edo ez: onez ganera ecerbere esan bagaric, Jesucristoc eracusten deuscun leguez.

P. Eta agindu onetan beste gauzeric galerazoten bada?

E. Bai, Jaune, galerazoten da blasfemiye bere, cein den, ~~esatetic~~ esatie berba charrac Jaungoicoagaitic, edo bere santuegaitic; eta au pecatu mortala da.

P. Cein da irugarrena?

E. Domecac eta jaiyec gordetie.

P. Noc gordetan ditu jaiyec?

E. Meza osoa entzun, eta premiñe bagaric, biarric equiten ez daudenac.

P. Eta ce pecatu de domeca jaiyetan premiñe baga biar equitie?

E. ordu biric gora biar equiten bada, pecatu mortala; eta ordu biric beeracoa bada, queijenez pecatu veniela.

P. Cein da laugarrena?

E. Aite eta Ama onretie.

P. Noc onretan ditu guresoac?

E. Euren esanac equiten dituezanac, eurei lagundu, ta lotsic gordetan deutsienac.

P. Nortzuc equiten daude pecatu mortala onein contra?

E. Echien, eta arimien oneraco dirien gaucetan, gurasoen esanac equiten eztituezan seme alabac, guresoai euren premiñetan laguntuten eztentsienac, birauac botaten deutsiezanac; burle equiten deutsienac; eta ez conduteco biarretan dabiltzezanac euren barri ta borondate bagaric.

P. Nortzuc besteric entendietan dire gurasoen ucenagaz?

E. Nagosijagoac edadien, onran eta aguintaritzan.

P. Eta mandamintu onetan sartuten ete dire seme alabac gurasoacganaco dauquiezan obligacinoiez ganera, besteren batzuc?

E. Bai Jaune, nagusijagoac euren aguindupien dauquiezanacganacoac, eta gurasoac euren seme alabacganacoac.

P. Ceintzuc dire orreic?

E. Emotie yanarije, iracatsi dotrinie, castigau oquerrerijac equiten dituezanien, egemplu ona, eta yagoquien estadue bere demporan.

P. Ce pecatu equiten daude, onetan faltetan daudienac?

E. Gueijenez pecatu mortala.

P. Cein da bostgarrena?

E. Ez iñor iltie.

P. Cere aguinduten da mandamintu onetan?

E. Ez equitie iñori gachic ez equitez, ez esatez, ez desioz bere.

P. Noc equiten dau pecatu mortala mandamintu onen contra.

E. Bere bureneri, edo iñorenarei erijotzie, edo gach andiren bat desietan deutsienac; norbait il, edo zauritu ten dauenac; iñor yoten dauenac, osasunien calte andije equingo deutsien gauzac yaten dituezanac; bere vicitzie galduteco arriscuen yaeten danac, edo norbere burue ilten dauenac, eta norberarei edo besteri birao equiten deutsenac

P. Cer da birao equitie?

E. Da escatutie gachen bat norberentzat, edo besterentzat, esango-balen leguez: Arren bada mille demoniñoc infernure eroango al naijoec. Arren bada "Orche ilic yausico al az".

P. Ce pecatu de birao equitie?

E. Gach andije desietan baiyaco, pecatu mortala.

P. Eta gach andiric desietan ez bayaco.

E. Pecatu veniela, beti ezpada bere.

P. Nortzuc pecatu mortala equiten daude birao andije

equiñegaz desio char bagaric?

E. Gueiyenez gurasoac eta nagusija goac, euren aguindupecoen aurerien biraoac botaten ditueezanac, biraoac botateco ecandu charra dauquienac, eta quenduteco alegueinic equiten ez dandenac.

P. Cegaitic orei?

E. Euren berba char, eta egemplu gaiztoacaz bestiei pecatureco bidie emoiten deutsielaco; eta oneri derecho escandalue.

P. Cein da seigarrena?

E. Araquizco pecaturic ez equitie.

P. Cer aguinduten yacu mandamintu onetan?

E. Yzen gaitezala garbiyec pentzamentu, berba eta obretan

P. Nortzuc equiten dande pecatu mortala mandamintu onen contra?

E. Borondatez pensamintu loijec dauquiezanac, gauze charric equin ez arren, eta equiteco deseoric bere enqui ez arren, berba loijec esaten ditueezanac; canta ciquiñec cantetan ditueezanac, edo borondatez entzuten ditueezanac, bestiei tocamintu loijec equiten deutsiezanac; euren burucaz biar ez dan lecuetan nabarmenquerijac equiten ditueezanac; edo equiteco deseo charrac dauquiezanac.

P. Cein de zazpigarrena?

E. Ez iñori ecer ostutie.

P. Cer aguinduten da mandamintu onetan?

E. Ez dagigule quendu, ez enqui, ez gure izen iñoren gauzeric yaubien borondatien contra.

P. Nortzuc equiten dande pecatu mortala onein contra?

E. Oneitarico edoceimbere gauze equiten dandenac, edo beste moduren baten progimueri calte equiten deutsienac, dan moduen dala, bere ondasunetan, gauze astunien,

P. Eta oneitan progimueri calte equiten deutsenac edocein bere moduten, bauquie ecer equin biarric?

E. Bai Jaune, aimbet lasterren biar deutsie

biurtu biar deutsie yaubiei ostu deutsen gauzie; eta osotu, equin deutsiezan calte guztijec.

P. Cein de zortzigarreena?

E. Iñoei faltso testimoniñoric ez eregiutie, eta guzurric ez esatie.

P. Cer aguinduten da mandamintu onetan?

E. Ez equitie progimuegaitic juicijo charric arin, au de, motivu bagaric, eta bere faltac ez esatie, ez borondatez entzuten egotie.

P. Noc autiten dau mandamintu au?

E. Juicijo charra errazoyen contra, au de, ataraco biar dan laimbesteco motivuric euqui baga progimuegaitic equiten dauenac; iñori cleitue quenduten deutsenac; gauze issil, ta ezcutucoa aguertuten dauenac, eta guzurre esaten dauenac.

P. Eta progimueri cleitue gauza astunen quenduten deutsenac, esanagaz beragaitic equin ez dauen gauzaren bat; edo equin dauena, baña issillien eta ezcutuen dagoana; edo bere faltacaz arpeguijen emoten deutsenac, cer equin biar dan?

E. Biurtu biar deutso quendu deutsen cleitue, eta onrie.

P. Cer da galazotz galarazoten dana bederatzigarren eta amargarreen mandamintuetan?

E. Araguizco atseguinen eta iñoren ondasunen desio charrac

---

Elessa Ama Santien mandamintuec

P. Elessa ama santien mandamintuec, ceimbet dire?

E. Bost

P. Ceintzuc dire?

E. Lelengoa meza osoa entzutie domeca eta jai guztijetan.

Bigarrena, urtien bein guichijenez confesatie; edo lenago erijotzaco peligruric badago; edo comulgau biar badau.

Yrugarrena Garizumeco pascoetan comulguetie

Laugarrena Elessa Ama santiec aguinduten danenien baraú eguitie.

Bostgarrena amarrenac eta premecisac Jaungoicoen Elessieri paguetie.

P. Cetaraco dire mandamintu oneic?

E. Jangoicoen lequecoac obato gordetaco.

P. Eta lelengo mandamintue, cein den mecie entzuteco, nortzuc gorde biar daude?

E. Uso errazoez cora eldu dirien cristiñau guztisec.

P. Celan entzun biar da mecie?

E. Egonic atenciño, debociño eta errespeto andisegaz, Jesu Christo gure Jaunen pasiñoa, edo beste gauze onen batzuc buruen darabilguzela; edo cerbaist errecetan

P. Eta motivu andiric euqui baga mecie entzuten ez danenac; edo dagoanac meza guztisen, edo zati andisen atenciño-baga, edo mezaric ez entzuteco arriscuen yarten danac, ce pecatu eguiten dau?

E. Pecatu mortala.

P. Eta bigarrena eta irugarrena, ceintzuc dirien confesetie eta comulguetie, nortzuc gorde biar dituez?

E. Pecatu mortalen bien, uso erra2oez cora eldu dirien cristiñeu guztisec.

P. Eta pecatu mortalien comulguetan dirienac, mandamintu oneic cumplietan ete dituez?

E. Ecelambere ez. Jaune, eta sacramentu bi oneitatic bacocha deungaro artuten daudesenien, pecatu mortala eguiten daudie.

P. Ilteco arriscuen aurquituten danac, confesoreric ez badauco, cere eguin biar dau?

E. Acto contriciñoco bat, Neure Jesucristo Jaune viotzez esaten dauela, confesetaco propositu egaz.

P. Eta laugarrena, cein den barau eguitie, nortzuc gorde biar daude?

E. Ogueta bat urte cumplidu dituezanac.

P. Eta celan eguin biar da barau?

E. Egunian jatealdi baño eguiten ezdala, eragotziric

ez dagozan janarijecaz, eta jatealdi au equerdijen equin biar da.

P. Eta barane ansi bagaric, artu ete leique ecer gossien?

E. Bai Jaune, artu leique ontza bat leguez, motivuric badago, motivu ~~rig~~ au chiquerra izen aren bere.

P. Eta gaubien?

E. artu leique colaciñotzat, cristinen onen artien artu oi dana, preguntauric onen ganien, duderic badauco, confesore yaquintsu bateri.

P. Eta nortzuec dauquie galerazoric araquije gatic vigilije ta barau egunetan; oneitan nastitutie oquelije ta arraiñe yatordu baten, eta yalie arrontzac, eta ezneya quijec garizuman, bilderic euqui baga?

E. Uso errazoez cora eldu dirien guztijec.

P. Eta ce pecatu eguiten daude, oneic gordetan eztituezanac?

E. Pecatu mortala, alango egunetan yaten dauden guztijetan, eta bacochien.

---

Obra misericordijezcoac

P. Ceimbet dire obra misericordijezcoac?

E. Amalau: zazpi arimieri, eta beste zazpi gorputzeri yaocazanac

Arimieri yagocazanac dire oneic.

Lelengoa ez daquienari irecastie.

Bigarrena biare dauenari consejo ona emotie.

Yrugarrena erratuten danena arteztutie.

Laugarrena gach equinec parcatutie.

Bostgarrena triste dagoana poztutie.

Seigarrena progimuen utseguite ta argaltasunec pacienciagaz iquerotie.

Zazpigarrena vicijec eta illecgaitic Jaungoicoari erregututie.

Gorputzeri yagocazanac dire oneic.

Lelengoa gueissoac visitetie.
Bigarrena gosedanari yaten emotie.
Yrugarrena egarri danari edaten emotie
Laugarrena cautiboac errescatetie.
Bostgarrena billosac yantzitie.
Seigarrena peregrinoai ostatua emotie.
Zazpigarrena illec enterretie.

P. Cegaitic derichoie misericordijezcoac?

E. Justicijez zor ez dirielaco.

P. Nos dire obliguecinocoac?

E. Guizon entendiduen erechijen premiñe andicoac dirienien.

P. Eta cristiñenec equiten dituzen obra misericordijezco oneicgaitic, eta beste gauze onacgaitic; nai izen aguindute dagszanac, nai borondatezcoac, cer irepaciten dan?

E. Jangoicoen gracijan badago, euren bitartez gueitutie euren gracije ta guero glorije; pagau Jaungoicoari bere pecatuen zorra; eta alcantzau Jangoicoaganic arimeco onera ta mesediec; baita gorputzecoac bere, arimien caltien izengo ezpadire

P. Cetaraco esaten dozu: Jangoicoaren gracijan badago?

E. Pecatu mortalien dagozanac equiten dituezan obra onacaz, ez dagoalaco irepaciteric, ez pecatuen zorra paguetaric, baye alambere euren bitertez Jaungoicoaganic mesederen batzuc alcantzau guiñeiquez

---

## Dotriñien laugarren partie,

### Ceñetan espliquetan dirien sacramentu santuec.

---

Ycusi dogu celan daquizun cer sinistu, cer escatu, eta cer eguin biar dozun: dacuzcun orain celan daquizun cer artu biar dozun, cein den azquenecoa. Esan-equidazuz Sacramentu santuec

Elessa ama santien sacramentu santuec dire zazpi.
Lelengo bostac dire gure, ta gure-ezcoac, izeter edo borondatez,

ceintzuc baga salbau ecin leitequien, ichiten badittu nagusitasunez, edo ecetan ez euquiz; beste bitec dire borondatezcoac.

Lelengoa Bautismue.

Bigarrena confirmaciñoa.

Yrugarrena confesiñoa.

Laugarrena comuniñoa.

Bostgarrena oliaciñoa

Seigarrena Ordia sagradua.

Zazpigarrena Matrimoniñoa.

P. Ce gauce dire Sacramentuec?

E. Dire Jesucristo gure Jaunec ichirico señale aguiri batzuc, euren bitartez emoteco guri bere gracije eta virtutiec.

P. Cer da gracije?

E. Da izate Jangoicozco bat, ceñec eguiten gaituzen Jangoicoen seme ta ceruco herederu, edo yaubeguei.

P. Eta celan dericho gracije oneri?

E. Santiotutzallie.

P. Eta onezaz ganera, ete dago beste gracije moduric?

E. Bai, Jaune, bagoz beste batzuc, ordu bere coac esaten yaquienac, edo laguntasun batzuc, edo arguitasun batzuc, ceintzuc bagaric ecin guiñaiquien asi, ez berari yarraitu, ez bera acabau, betico vicitzie irebazteco gauzeric.

P. Eta cegauze dire orreic?

E. Dire Jaungoicoac emoiten deuscuzen laguntasun batzuc, gauza charretatic apartetaco, eta gauze onac eguiteco; esateraco, sermoiec entzutie; egemplu onac icustie, uste bagaco erijotzen barrije artutie; eta arguitasun batzuc ceintzuecaz arguitutten dituzen Jaungoicoac gure entendimentuéc, eta desio santu batzuc, ceintzuecaz mobietan dituzen gure borondatiec oneraco.

P. Ce virtute emoiten daude sacramentuec, gracijegaz bestera?

E. Batezbere iru Jaungoicozcoac.

P. Ceintzuc dire?

E Fedie, Esperantzie, eta caridadie.

P. Cer da Fedie?

E. Ycusi eztegune sinistutie, Jangoicoac alan aguertu danelaco.

P. Cec da Esperantzie?

E. Esperetie ceruco glorije, Jangoicoen laguntasunen, eta guewre obra onen bitertez.

P. Cer da caridadie?

E. Jaungoicoa ametie gauze guztijen ganien, eta guewre progimue guewre burue leguez, ewrei equiten dentsequle, ewrec guewri equitie gureco geunquiena.

P. Cetaraco da Bautismuco Sacramentu Santue?

E. Quenduteco pecatu originala, eta batietuten danac besteric balenco bere.

P. Cer da pecatu originala?

E. Da yaiysten garienien guewre lelengo gurasoetatic heredauta dacargune.

P. Premiñeco demporan, noc batietu leique?

E. Edocein bere guizacume, edo emacume, entendimentuco arguitasune dauquenac.

P. Eta celan batietu biar da?

E. Ure botaten dala seiñen buruen ganera, eta onegaz batera esaten dala, batietuteco intenciño agaz: "Nic batietuten zaitut, Aitien, eta Semien, eta Espiritu Santuen ucenien," Amen.

P. Cetaraco da confirmaciñoco Sacramentu Santue?

E. Bautismuen artu genduen fedien confirmau eta sendotuteco.

P. Usu errazoezcora eldute, Sacramentu Santu au pecatu mortalien artuten dauenac, ce pecatu equiten dau?

E. Pecatu mortala.

P. Cer eguiñgo dau bada artuten dauenien pecaturic ez equiteco?

E. Aurrez prestau, equinic confesiño on bat.

P. Cetaraco da confesiñoco Sacramentu Santue?

E. Batietu ezquero equinico pecatuec parcatuteco.

P. Ce pecatu dire orreic?

E. Mortalac, eta venielac

P. Cer da pecatu mortala?

E. Da esatie, equitie, pensetie, edo desietie cerbaist Jangoicoen leguien contra gauze astunien.

P. Cegaitic dericho mortala?

E. Ylten danelaco equiten danenen arimie

P. Nos artuten dogu confesiñoco Sacramentu Santue?

E. Ondo confesante, absoluciñoa artuten doguenien

P. Ceimbet gauze bier dire confesiñoa ona iceiteco?

E. Bost gauze, Jaune.

P. Ceintzuc dire?

Lelengoa Esaminie.

Bigarrena Damue.

Yrugarrena Propositue.

Laugarrena Pecatuen confesiñoa.

Bostgarrena Satisfaciñoa.

P. Cer da Esaminie?

E. Da aleguiñec equitie pecatuec buruze ecarteco, edo ceimbet pecatu equin deuen yaquiteco

P. Nondi equingo da Esaminie?

E. Jangoicoen legueco amar mandamintu Santuetati, bost Elesacoetati, amalau obra misericordifez-coetati, pecatu capitaletati, eta bacocharen obligaciñoetati.

P. Cer da esaminie aurrien equin biar dana?

E. Jaungoicoari arguitasune escatu, bere pecatuec ezaututeco

P. Cer da damue?

E. Artutie vijotzien equin den pecatuen garbai, pena, eta atsecabie.

P. Ceimbet modutecoa da damue?

E. Modu bitecoa.

P. Ceintzuc dire?

E. Amodifozco, edo contriciñocoa bata; eta bildurezco, edo Atricinocoa bestie.

P. Amodifozco, edo contriciñoco damue cer da?

E. Da artutie damu vici bet, ofendidu danelaco Jangoicoa, izenic ain ona, confesetaco, onduteco, eta penitencife

cumplietaco intenciñoagaz

P. Cer da Bildurreezco edo Atriciñoco damue?

E. Da enquitie damu vici bet, Jangoicoa ofendidu danelaco, edo pecatuen ezaintasunaegaitic, edo infernuen bildurregaitic, edo ceruco glorije galdu danelaco; edo bere arimie guztiz ezaindu danelaco, confesetaco, onduteco, eta penitencije cumplietaco intenciñoagaz.

P. Damu bi oneitatic oneena ceinde?

E. Amodijozco, edo Contriciñocoa.

P. Cegaitic?

E. Contriciñocoa datorrelaco amodijoti eta Atriciñocoa bildurreti: Contriciñoco damuegaz, confesau baño lenago parcatuten dire pecatu mortalac, eta gueldituten da Jangoicoen gracijan; baye atriciñoagaz bacarric, ez dire alcantzetan arimeco zorijontasun oneic.

P. Confesinoa ona izateco, asco ete da atriciñoco damue, ala contriciñocoa biar ete da?

E. Gueijenac diñoe, asco dala atriciñocoa, baye obetoago eta seguruago dala contriciñocoa; eta au enquiteco alegiñe eguin biar danela confesetan danac.

P. Nos enqui biar da damue?

E. Confesoriec absoluciñoie emon baño lenago

P. Cer da Propositue?

E. Da artutia intenciño, eta borondate firme bat, ez iñoz gueiyago pecatu mortalic eguiteco.

P. Cer da confesiñoa?

E. Da esatie cietz eta arguiro pecatu mortal guztijec confesoreri, penitencije cumplietaco borondatiegaz.

P. Ichiten danenac lotsaz confesau bagaric pecatu mortalen bat; edo confesetan danenac eguin ez danen pecatu andiren bat; edo confesetan danac ~~danen~~ damu baga, propositu baga edo penitencije cumplietaco borondate baga, confesiño ona eguiten ete dau?

E. Ez Jaune, eguiten dau Sacrilegijoco pecatu mortal andi bet; eta confesau bier ditu barriro, len confesauac, eta confesau bacoac, baitebere confesiño ta comuniño charracaz eguin dituzen sacrilegijoco pecatuec.

P. Nortzuc sinistu leiquie ez dandela enqui damuric, ez proposituric euren confesinoietan?

E. Pecatuco ocasiñoetatic apartetan ez dirienac, eta confesiño bateric bestera lengo pecatuetara biurtuten dirienac.

P. Eta damu ta propositu eguitez cod artuten lagunduteco, cer eguitie ondo izengo da?

E. Confesau baño lenago escatu Jaungoicoari, confesiño on bat eguiteco laguntasuna emon dagijola, erabilli gogoan Jaunac eguin deutsezan mesediec; edo bere pasiñoa eta erijotzie, edo bere ontasune, eta esan bein, birriten eta gueijagotan: Neure Jesucristo Jaune.

P. Cer da Satisfaciñoa?

E. Da paguetie Jangoicoari gueure pecatuen zorra cumplietan dogule confesoriec iminten deuscun penitencije.

P. Eta ce pecatu eguiten dau penitencije cumplietan ezdauenac, edo luzero cumplitu bagaric dauquenac?

E. Pecatu mortala, penitencije andije bada

P. Pagau ete guinaguijo Jaungoicoari gueure pecatuen zorra, iminten deuscuen penitencijez ganera beste gauzegaz?

E. Bai Jaune, Jaungoicoen gracijan gagozala eguiñico obra on guztijecaz, eta indulgenciac irebacijegaz.

P. Certzuc dira Yndulgencijac?

E. Dire Elessa santiec emoten dituzen gracije batzuc, ceintzuecgaitic parcatuten dan, pecatuacgaitic mundu onetan edo bestien igaro biarco litzatequien pena eta castigue.

P. Celan irebacico dire?

E. Eguinic Jangoicoen gracijan, onetaraco aginduten dana.

P. Mundu onetan eureen pecatuen zorra pagau ez endielaco purgatorijora doazanai, guc lagundu ete guinaiguijo gũe?

E. Bai, Jaune. gueure pecatuen zorra pagau guinequien obra onacaz eureecaz.

P. Eta norbait pecatu mortalien yausten danien, confesau biar ete dau lastre beriela, parcatua izen daquijon?

E. Guztiz ondo izengo litzateque; baña ez dago aparteco aguindurie. Jaquin biar da pecatu mortalien lo equitie, infernuco atetan lo equitie leguez dala.

P. Cer da pecatu veniela?

E. Da esatie, equitie, pentetie edo desietie cerbaist Jangoicoen leguien contra gauze chiquerren ganien.

P. Cegaitic dericho veniela?

E. Arin eta erraz beratan yausten garielaco eta arin eta erraz parcatuten yaculeco.

P. Ceimbet gauzegaitic parcatuten da pecatu veniela?

E. Bederatzigaitic.

P. Ceintzuc dire?

E. Lelengoa Meza entzutiegaitic.

Bigarrena Comulguetiegaitic.

Yrugarrena Ni pecatarije esatiegaitic

Laugarrena Obispo Jaunen bendiciñoagaitic

Bostgarrena ure bedeinquetuegaitic.

Seigarrena ogui bedeinquetuegaitic

Zazpigarrena Aitegurie esatiegaitic.

Zortzigarrena Sermoie entzutiegaitic.

Bederatzigarrena bularra jotiegaitic Jangoicoari parca escatuten deutsegule

P. Cegaitic esaten dozu: Jangoicoari parca escatuten deutsegule"?

E. Adierazoteco, pecatu venialen parcaciñoa alcantzauco bada, gauze onein bitartez, euqui biar dogule euren damu onen bat.

P. Confesau biar ete doguz pecatu venielac?

E. Ondo litzateque, baye ez da premiñezcoa

P. Eta orainengo confesiñotic ona, pecatu venialac baño eztanquezanac, cer eguin leique, damue ta propositue ciertuego euquiteco?

E. Confesau lelengo orainengo confesiñoti onaco pecatu venielac; eta guero lengo vicitzeco

pecatu mortalen bat.

P. Cetaraco da Sacramentu santu comuniñocoa?

E. Ondo prestaute artuten bada, izen dedin gure arimen yanarije, eta gracije gueitu daigun.

P. Cegaitic diñozu: ondo prestaute artuten bada?

E. Adierazoteco, Sacramenentu Santu au ezdala izengo gure arimen yanarije, artuten ezpadogu bier dirien prestaeracaz, bai arimien aldeti, eta bai gorputzen aldeti.

P. Prestaera bier da bada arimien aldeti?

E. Jangoicoen gracijen egotie

P. Eta pecatu mortalien yausi dana, celan prestauco da comulguetaco?

E. Confesiño on baten bitartez.

P. Eta confesiño ostien pecatu mortalen bat acordetan yaconac, cer eguin bier dan?

E. Confesau barriro, comulgau baño lenago.

P. Gorputzen aldeti, ce prestaera bier da?

E. Barauric egotie (comuniño santue Elessacoac artuteco eztanien) ecer bere yan, ez edan bagaric, igaro dan gaueco amabijetati aurrera

P. Comuniñoco Sacramentu Santuesn cer artuten dozu?

E. Jesucristo, Jangoico taguizon eguijezco, Altaraco Sacramentu Santuen eguije guztijegaz dagoana.

P. Nor dago ostrijan consagraciñoco berbac esan ezquero?

E. Jesucristoren gorputze, bere odol, arime, eta Jaungoicotasunegaz batera.

P. Eta calizan?

E. Jesucristoren odola, bere gorputz, arime, ta Jangoicotasunnegaz batera

P. Onan Jesucristo guztije dago ostrijan eta calizien?

E. Bai Jaune, Jesucristo guztije dago ostrije guztijen, guztije ostrijien edocein zatiten, eta bardin calizien.

P. Consagraciñoco berbac esan ezquero ete dago ostrijan oguiric, edo calizan ardaoric?

E. Ez Jaune, ezpado oguijen eta ardoen antz eta irudijac, ceintzuc dirien useiñe, colorie, gustue, &

P. Eta zatituten bada ostrijie, edo erdibitu calizan dagoana, zatituten, edo erdibituten ete da Jesucristo?

E. Ez Jaune, guztije osoric queldituten da zati guztijetan eta bacochien.

P. Pecatu mortalien comulguetan danac, artuten ete dau Jesucristo?

E. Bai Jaune, baye bere caltien; bada eguiten dau Sacrilegijoco pecatu mortal iquaragarri bet

P. Eta ondo prestaute artuten danenac, cer eguin leguije gracije andijegoac artuteco?

E. Comulgau baño lenago gogoan erabilli, nor dan eurecgana datorren Jaune; eguin sarriten fede, esperantza ta caridadeco actoac; comulgau umiltasun, fede vici ta debociño andijegaz, eta quero emon esquerrac Jesuseri, eguin deutsen mesede ain andijegaitic.

P. Cetaracoda Oliecïñoco Sacramentu Santue?

E. Yru gaucetaraco.

P. Ceintzuc dire?

E. Lelengoa, lenagoco vicitze charreco errastu eta apurrec quenduteco.

Bigarrena sendotuteco arimie diabruen tentaciñoen contra.

Yrugarrena emoteco gorputzeco osasune, arimien caltien izengo ezpada

P. Ezaueraro eldute, ilteco arriscuen gaissoric dagozanac artu bier ete dande Sacramentu Santu au?

E. Bai Jaune, eta pecatu mortala eguiten dande, al dandela, artuten ezpadande, edo artuten badande pecatu mortalien.

P. Cer eguingo dau bada pecatu mortalien dagoanac, ondo prestauric artuteco?

E. Confesiño on bategaz garbitu bere arimie, eta ecin bada confesau, eguin acto contriciño-co bat, edo batzuc.

P. Cetaraco da Sacramentu Santu Ordiecoa?

Consagretaco eta ordenduteco elesgizon duiñec, celan dirien Sacerdote Jaunec, Diaconuec, eta Subdiaconuec.

P. Eta Elesquizonai, eta batez bere Sacerdote Jaunei, gorde bier ete yaquie beraizco lotsa eta erreveren cije?

E. Bai Jaune.

P. Cetaraco da Sacramentu Santu Matrimoniñocoa?

E. Ezconduteco, eta emoiteco gracije ezconduei, euren artien baque santu baten viciteco, eta Seme alabac cerureco aciteco.

P. Eta Sacramentu Santu au ondo artuteco, ezconduten dirienac egon bier ete dandie Jangoicoen gracijan?

E. Bai Jaune.

P. Eta Jaungoicoen gracijan ez dagozanac, celan prestau biee dande ondo artuteco.

E. Confesino on bategaz

## Pecatu Capitalac dire zazpi.

Lelengoa Arroquerije. Bigarrena Avaricije. Yrugarrena Lujurije. Laugarrena Aserre charra. Bostgarrena Gulerije. Seigar. Bestien onaren damue. Zazpigarrena Gauze onetaraco naguitasune.

P. Cegaitic deituten deutsezu Capitalac, gueijemien mortalac esaten yaquien zazpi pecatu oneiri?

E. Deituten yaquie Capitalac, dirielaco euretaric urteiten dandien beste pecatuen buru, iturri, eta sustraijec leguez; echatoz barriz ain ondo mortalen icena; bada ascotan eztire venielac baño.

P. Nos dire mortalac?

E. Jangoicoen eta progimuen caridadien contra dirienien.

P. Nos dire caridadien contracoac?

E. Euren bitartez ausiten danien Jaungoicoen legueco, edo Elessa santien mandamintuen bat gauze astunien

P. Cer da Arroquerije?

E. Bestiec baño gueiyago izeteco desio bidebagaco bat.

P. Cer da Avaricije?

E. Da munduco ondasunen desio larr bat

P. Cer da Lujurije?

E. Da gorputzeco atsequin loijen desio bidebagaco bat.

P. Cer da Yra, edo aserre charra?

E. Da progimuari benquetaco desio charr bat.

P. Cer da Gulerije?

E. Da ondo jan, edan, eta gorputze erreguetaco deseo gueijegui bat

P. Cer da Ymbidije, edo Ondamue?

E. Bestien ona icusi eciñe.

P. Cer da Nagiitasune?

E. Da gauze onetaraco yausitasune, astuntasune eta narrastasune.

Zazpi pecatu onein contra
dagoz zazpi virtute.

Arroquerijen contra Humiltasune.
Avarijen contra Prestutasune.
Lujurijen contra Castidadie.
Aserre charreen contra Paciencije.
Gulerijen contra Templantzie.
Yimbidijen contra Caridadie.
Nagitasunen contra, Prestatasune edo Bizcortasune.

Yñes equin biar deutseguen arimeco arerijoac
dire iru.

Lelengoa Mundue. Bigarrena Demoniñoa. Yrugarrena Gueure araguije.

P. Cein de Mundue? E. Dire guizon mundutarr gaisto eta deungac.

P. Cein de Demoniñod? Da Jangoicoac

Ceruen eguin euen anguerubet; baye Jaungoicoari contra eguin eutselaco, Jangoicoac beste ascogaz bota eban infernuetara bere gaiztaquerijeco lagunecaz, ceintzuei deituten deutseguen demoniñoac.

P. Ceinde Araquije? E. Da gueure gorputzeberà bere pasiño char, eta desio citelqcaz.

P. Celan azpiretuten da Mundue, eta iñas eguitenda beragandic? E. Beragandic iñes eguiten dala; eta bere arroquerije eta zoraquerijac desprecijenegaz.

P. Celan azpiretuten da Demoniñoa, eta iñes eguiten da beragandic? E. Oraciñoagaz, eta Humiltasunegaz.

P. Celan azpiretuten da araquije, eta iñes eguiten da beragandic? E. Barunecaz, Cilicijoacaz, azotiecaz eta lastasunecaz. Au degure areriforic andijena, bada ecin bota guiñeique guengánic; Mundue eta Demoninua bai.

Virtute Teologalac, edo Jaungoicougan anchacoac dire iru.

Lelengoa. Fedie. Bigarrena Esperantzie. Yrugarrena caridadie.

P. Celan egongo gara faltau bagaric, virtute onein actoac eguiteco dauqueguun obligaciñora? E. Errecetan doguzela sarriten eta debociñoz (edocein cristiñeuc bier dauen leguez) Credoa, Aitequrie, eta vijotzetic esanagaz. Neuce Jesucristo Jaune. Alambere guztiz ondo da, actoac eurec eguitie sarri.

Virtute Cardinalac dire lau.

Lelengoa Prudentzije. Bigarrena Justicije.

Yrugarrena Sendotasune. Laugarrena Templancie.

Gorputzeco Sentiduec dire bost.

Lelengoa beguijecaz icustie.

Bigarrena belarrijecaz entzutie.

Yrugarrena agoagaz gustue artutie.
Laugarrena surregaz usein eguitie.
Bostgarrena escuecaz ucututie.

P. Cetaraco emon euscuzen Jaungoicoac sentiduec, eta gorputzen beste zatijec?

E. Guztijecaz, eta gauze guztijetan bera servidu guiñeijen.

Arimeco Potencijec dire iru.

Memorije: Entendimintue eta Borondatie.

P. Cetaraco emon euscun Jangoicoac Memorije?

E. Acordau guiñaitezan beragaz, eta bere mesediecaz.

P. cetaraco emon euscun ~~Jaungoicoac Borondatie~~ Entendimintue?

E. Bera ezagututeco, eta bera sarriten gogoan erabilteco.

P. Cetaraco emon euscun Jaungoicoac Borondatie?

E. Amau guinaijen Ontasun osoa leguez eta progimue beragaitic.

P. Cer da gure arimie. E. Da espiritu bet, il ecin leiteguiena, Jangoicoac ecerecetic bere antz eta irudire eguiñe.

Espiritu Santuen doyec dire zazpi.

Lelengoa Yaquituríjeco Doye.
Bigarrena, Entendimintuco Doye.
Yrugarren Consejuco Doye.
Laugarrena Yaquituríjeco Doye
Bostgarren Sendotasuneco Doye.
Seigarrena Piedadeco Doye.
Zazpigarrena Jaungoicoaren bildurre Santuco Doye.

Espiritu Santuen frutuec dire amabi

Lelengoa Caridadie. Bigarrena Baquie. Yrugarrena

Vijotzeco anditasune. Laugarna Biguntasune. Bostgarrena Fedie. Seigarrena Continencije. Zazpigarrena Arimeco Poza. Zortzigarrena Paciencije. Bederatzigarrena Ontasune. Amargarrena Otsantasune. Amacagarrena Modestije. Amabigarrena Castidadie.

Zortzi zorijontasunec

1 Zorijonecoac espirituz probiec dirienac, eurena dalaco cerutaco erreñue.

2. zorijonecoac otsanac, lurren yaubiec eurec izengo dirielaco.

3 zorijonecoac negar eguiten dandenac, eurec poztuec izengo dirielaco.

4 Zorijonecoac gauze onen eta santuen gose, ta egarri dirienac, eurec aseta betiec izengo dirielaco.

5 zorijonecoac erruquiorrac, bada eurentzat bere erruquije izengo da.

6 Zorijonecoac vijotz garbicoac, eurec Jangoicoa icusico dandielaco

7 Zorijonecoac baquetsuec, cegaitic ece eurei Jangoicoen Semien icena emongo yaquie.

8 Zorijonecoac persecuciñoie igaroten dandenac gauze onacgaitic; bada eurena izengo da cernetaco erreiñue.

P. Certzuc esan doguz orain?

E. zortzi zorijontasunec.

P. Ce gauze dire zortzi zorijontasun oneic?

E. Espiritu Santuen virtute eta dorien obraric onenac

P. Nortzuc dire espirituz probiec?

E. Eztandenac gure munduco onraric, ez aberastasunic, bere tertzijocoric bere; edolabere euretan vijotza imiñiric eztauquenac.

P. Nortzuc dire otsanac?

E Aserreric iñorbere eztauquienac, ezta pisque pisqueric bere.

P. Celan izango dire lurren yaube?

E. Euren burnen ganbe izeitiegaz

P. Nortzuc dire negar eguiten daudenac?

E. Atseguinic laburrenai bere ichiten dituezanac

P. Nortzuc dire ganze onen, eta santuen gose eta egarri dirienac?

E. Euren obligaciño guztijec, guztiz arduro andijegaz cumplietan dituezanac.

P. Nortzuc dire Erruqui orrac?

E. Yñori bere, ondo baño besteric desietan ez deutsienac.

P. Nortzuc dire vijotz garbicoac?

E. Euren desio char guztijec, guztiz azpiratu eta berpertatic botaten dituezanac

P. Nortzuc dire baquetsuec?

E. Euren burnen eta besteen baque guillac.

P. Nortzuc dire justicijegatic persecuciñoa sufrietan daudenac?

E. Ganz on guztijen gogor eta firme dagozanac, persequiduec izen arren

P. Cegaitic derichoe oneiri zorijontasunec?

E. Eurretan dagoalaco vicitze onetacoa, eta bestecoaren esperantzie.

P. Ceimbet dire guizonen azquenac?

E. Lau: Erijotzie, Juicijoa, Infernue ta Glorije

P. Cer da glorije?

E. Da vicitze bat, atsequin eta gozotasun guztijec oso osoric dagozana, eta ceñetan arrquituten diriren zorijontasun guztijec gacharen apurric bere baga: infernuen dagozan leguez gach guztijec, onic bat bere baga

P. Eta infernure ez yoateco, eta cerure irebazteco, cer eguin biar dogu?

E. Gorde mandamintu Santuec, ~~eta eurretan ez faltaric eguiteco?~~

P. Eta ete dagoz beste neurririen batzuc errazago gordetaco mandamintu santuec, eta eurretan ez faltaric eguiteco?

E. Bai Jaune.

P. Ceintzuc dire?

E. Sarriten confesetie ta comulguetie, egun bacocheco lanac eta biarrac egun guztijetan Jangoicoari ofrecietie; egun guztijetan mezie entzutie, egun guztijetan Errosarijoa errecetie; liburu onac irecurtie; oraciño eguitie; gau bacochien egun ataco esamiñie eguitie, ... eta baten asco esateco, artutie confesore on, yaquintsu eta begiratu bat, eta berac aguinduten deutsen guztije eguitie.

Yrac. Ondo diñozu; bada San Francisco Salesc[illegible]c diñuan leguez, salbetaco bier dirien conseju guztijec dagoz sartute, confesore on bat artutien. Eguizu bada zuc bere alanche; bada bera izengo da zuretzat angueru bat leguez, zucenduco zaituzana neuri oneĉaz, eta beste berari derichazanacaz, yarraitu daguijozun firme ceruco bidieri, eta guero eldu zaitezan Jangoicoa icustera betico zorijontasunien, ceñetaraco, eguiñec izen guinien.

Jaungoicoac guztijoc ara eroan gaguizela. Alan izen dedille

Ni pecatarije.

Ni pecatari au confesetan nachaco Jangoico guztiz poderosoari, Andra Marije beti Virginieri San Miguel anguerueri, San Juan Bautistieri, San Pedro ta San Pablo Apostoluei, Santu guztijei, ta ceuri neure arimeco aite, egun dodala pecatu pensamintuz, berbaz, eta obeaz, neure erruz, neure erruz, neure erru andijegaz. Orregaitic erreguituten deutset Andra Marije beti Virginieri, San Miguel Anguerueri, San Juan Bautistieri, San Pedro ta San Pablo Apostoluei, Santu guztijei ta ceuri neure arimeco aite, erregutu daguiozute

nigaitic neure Jaun eta Yangoicoari. Amen.

## Neure Jesucristo Jaune

Neure Jesucristo Jaune, Jaungoico ta guizon eguiñezcoa, neure Criyedorie, ta Salbadorie zarietaco, eta ametan zaitudezalaco gauze guztiyen ganien, damu dot Jaune, damu dot biyotz guztitic zu ofendidu zaitudezalaco; artuten dot propositu firme bat, ez gueiyago pecaturic eguiteco, confesetaco, iminten yatan penitenciye cumplietaco, pecatuco bide guztiyetatic apartetaco. Ofrecietan deutsudaz, Jaune, neure, vicitze, obra eta neque guztiyec neure pecatu guztiyen satisfacinoraco; eta esperetan dot zeure ontasun eta erruqui amaibagacoan parcatuco deustazuzela ceure odol guztiz precioso, pasiño, eta eriyotzie gaitic, eta emongo deustezule graciye ondutoco, eta ceu servietan izenteco neure eriyotzaco ordura artien. Amen.

gariena